

- **NOLA HARREMANDU BEZEROEKIN:**

Bezeroekin harremana sortzeko eta sustatzeko, hainbat gauza egingo ditugu. Hasteko, gure aplikazioa uneoro eguneratuko dugu ahalik eta zerbitzu hoberena eskaintzeko. Eguneratze hauek egiteko, gure enpresaren jardueretako bat izango da hau planifikatzea bezeroentzat erakargarri mantentzeko eta bezero berriak lortzeko.

Bezeroekin hainbat harreman mota izango ditugu:

Batetik, laguntza pertsonala. Hau da, bezeroen zalantzak argitzeko bezeroen arretarako zerbitzu pertsonalizatua. Bakoitzak dituen arazoak edo zalantzak argitzeko eta konpontzeko gai izango gara zuekin mugikorraren edo ordenagailuaren bidez komunikatuz.

Bestetik, autozerbitzua. Gure zerbitzua teknologiari esker sortua denez, bezeroek beren eskabideak egin ahal izango dituzte, denda fisiko batera joan behar izan gabe. Honela, gure zerbitzua erabiltzean bezeroarentzat erosotasuna sortuko dugu.

Automatizatutako zerbitzuak. Zerbitzu honekin, gure aplikazioa edo zerbitzua sortzeko eta ahalik eta hoberen funtzionatzeko beharrezkoak diren teknologiak erabili ditugu, komunitateak eta ko-sorkuntza esaterako.

Azkenik, komunitateak: Gure kasuan, Instagramean kontu bat sortuko dugu. Bertan, bezeroak gure aplikazioak egiten dituen look-ak ikusteko gai izango dira eta era berean, modu irekian erantzun ezin diren zalantzak eta arazoak konponduko ditugu.

Gure aplikazioa aurrera eraman ahal izateko modan espezializatua den pertsona batzuekin eta aplikazioak diseinatzen eta sortzen dakien norbaitekin kontaktatuko genuke proiektua ahalik eta hoberen ateratzeko.